

Erakusketa | Exposición

CENSURAS - ZENTSURAK

AGUSTÍN IBARROLA

Urtarrilak 18 enero - otsailak 28 febrero

Bilbao
Bizkaia Aretoa

www.ehu.eus/ehukultura-bizkaia



Erakusketa | Exposición

CENSURAS-ZENTSURAK

AGUSTÍN IBARROLA

Urtarrilak 18 enero - otsailak 28 febrero

Bilbao
Bizkaia Aretoa

www.ehu.eus/ehukultura-bizkaia

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

CENSURAS - ZENTSURAK

Agustín Ibarrola

2018ko urtarrilaren 18tik otsailaren 28ra
Del 18 de enero al 28 de febrero de 2018

Tokia / Lugar:
Bizkaia Aretoa
Abandoibarra, 3 - 48009 Bilbao

Erakusketa hau XII. ZENTSURAREN AURKAKO JAIALDIAren jardueren artean kokatzen da
Esta exposición se enmarca dentro de las actividades del XII. FESTIVAL CONTRA LA CENSURA



Antolatzaleak / Organizan:

ehukultura - Bizkaia
Bizkaiko Kultur Gestiorako Bulegoa
Oficina de Gestión Cultural de Bizkaia
Bizkaia Aretoa
Abandoibarra, 3, 48009 Bilbao
www.ehu.eus/ehukultura-bizkaia

Producciones Serrano
Arriaga Auzoa 28 (antiguo 23)
48650 Barrika (Bizkaia)
www.pserrano.com

Bizkaiko Campusaren Unibertsitate-Hedakuntzarako Zuzendaria /
Directora de Proyección Universitaria del Campus de Bizkaia:
Nerea San Martín Albizuri

Bizkaiko Kultur Gestiorako Bulegoa /
Oficina de Gestión Cultural de Bizkaia:
Marije Ortega Nuere; Richard Dominguez Cantolla

Producciones Serrano-ko Zuzendaria /
Director de Producciones Serrano:
José Ángel Serrano

Komizarioa / Comisario:
José Ibarrola Bellido

Argazkiak / Fotografías:
Tere Ormazabal Artetxe

Argitaraldia / Edición: 1goa, 2018ko urtarrila / 1^a, enero 2018
Ale-kopurua / Tirada: 500 ale / 500 ejemplares
© UPV/EHU
Euskal Herriko Unibertsitatea – Universidad del País Vasco

Argitaratzailea / Edita: ehukultura - Bizkaia
Bizkaiko Kultur Gestiorako Bulegoa
Oficina de Gestión Cultural de Bizkaia
Bizkaia Aretoa
Abandoibarra, 3, 48009 Bilbao

Producciones Serrano
Arriaga Auzoa 28 (antiguo 23)
48650 Barrika (Bizkaia)

Argazkiak / Fotografías: Tere Ormazabal Artetxe
Diseinu eta maketazioa / CANALDIRECTO
Diseño y maquetación:

Itzulpena / Traducción: UPV-EHUko Euskara Zerbitzua
Inprintatzea / Impresión: Grafilur
L.G / D.L. : xxxxxxxxx

Erakusketa | Exposición

CENSURAS - ZENTSURAK

AGUSTÍN IBARROLA

Urtarrilak 18 enero - otsailak 28 febrero

Bilbao
Bizkaia Aretoa

www.ehu.eus/ehukultura-bizkaia



ehukultura
Bizkaia

ZENTSURAKAT!
Zentzurakat! Kultura, Giza eta Etxeko Zuzendaritza

Bilbao, 2018

I ВАРХОД

UPV/EHUren erronketako bat da zentzu zabalenean ulertutako kultur programa ireki bat diseinatu eta garatzea, eta programa horretan kalitateari eta interesari nagusitasuna ematea. Unibertsitatea irakaskuntza da, ikerketa da, baina beste gauza asko ere bada. Ildo horretatik, gure helburu nagusienetako bat da artea eta kultura euskal gizartearekin harreman estuan sustatzea eta zabaltzea.

Kasu honetan helburu hori oso era berezian bete da, eta guretzat plazer eta ohore handia da unibertsitatearen eta Bizkaia Aretoaren atea Agustín Ibarrolaren erakusketari irekitzea, Ibarrola euskal arte garaikideak duen artistarik esanguratsuenetako bat izateaz gain, UPV/EHUko Klaustroko kide ere izan genuelako 1980tik 1984ra.

Erakusketa honen xedea ez da bakarrik Agustín Ibarrolak irakasle moduan izan duen ibilbidea aitortzea eta egindako lanagatik eskerrak ematea, baizik eta omenaldia egitea euskal artearen figura berezi bati, hain zuzen ere, mende erditik gora etengabe lanean jardun duen eta gure hurbileneko historiaren leku eta historia horretan eragile aktibo eta erreferente etiko izan den intelectualari.

Unibertsitateko kideok aukera paregabea dugu beste behin ere artistaren lanera hurbiltzeko, eta, horregatik, guztiok gonbidatu nahi zaituztet erakusketa ikusi eta bertan dauden lanei buruzko gogoeta egitera. Erakusketa hau Ibarrolaren sormenaren erakusgarri da, eta, aldi berean, lekukotasun baliotsua ematen du gure hurbileneko historiari buruz.

Nekane Balluerka
UPV/EHUko errektorea

Uno de los retos de la UPV/EHU es desarrollar una programación cultural en el más amplio sentido, diseñada con un sentido abierto y donde prima la calidad y el interés. La universidad es docencia, es investigación, pero es también muchas otras cosas. En ese sentido, promover y difundir el arte y la cultura, en estrecha relación con la sociedad vasca, es uno de nuestros fines principales.

En ese caso ese objetivo se cumple de forma muy singular, porque es un placer y un honor abrir las puertas de nuestra Universidad y de Bizkaia Aretoa a la exposición de Agustín Ibarrola, uno de los artistas fundamentales del arte contemporáneo vasco y que además formó parte del claustro de la UPV/EHU entre los años 1980 y 1984.

Esta exposición no sólo busca reconocer y agradecer la trayectoria de Agustín Ibarrola como profesor, sino también homenajear a una figura singular del arte vasco, un intelectual que ha trabajado sin cesar a lo largo de más de medio siglo y que ha sido testigo, agente activo y referente ético de nuestra historia más reciente.

Acercarse de nuevo a su obra es una extraordinaria oportunidad para nuestra comunidad universitaria, por eso quiero invitar a todas las personas que formamos parte de ella a visitar esta exposición y reflexionar en torno a sus obras. Es una buena muestra de la capacidad creadora de Ibarrola y, al mismo tiempo, un valioso testimonio de nuestra historia más reciente.

Nekane Balluerka
Rectora de la UPV/EHU

ZENTSURA AT!

Zentsura berba erabili ohi da, gehienetan, zentsuraztale batek obra baten edukian edo forman egiten duen esku-hartzea adierazteko, arrazoi moral, politiko, erlijioso, ideologikoengatik edo beste mota batzuetako arrazoiengatik egiten duenean. Hala, zentsurak adierazpide bat debekatzea edo mugatzea dakar, haren edukiak iraingarri edo kaltegarritzat jota.

Zentsura lotuta dago, oro har, zentsuraztalearen interesen kontrako informazioa zabaltzea eragoztearekin. Jendarte demokratikoetan, aurretiko zentsura debekatuta egon ohi da, eta agintariek ez dute eskubiderik inolako materialik argitara dadin debekatzeko. Material horrek, behin argitara emanda, delituriak badakar berekin, justiziak dagozkion neurriak har ditzake.

Halere, zentsura arte eszenikoetan eta plastikoetan mundu osoan ezarri izan da, eta oraindik ere ezartzen da, eta, kasu gehienetan, giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak babesturiko funtsezko eskubideak urratzen ditu.

Horrexegatik, ZENTSURA AT! jaialdiaren helburuetako bat da arte-mota guzietako artistak zentsuratuak diren edo izan diren kasuak salatzea. Hots, zentsura ikusgai jartzea, giza eskubide oinarrizkoenen bortxaketak ezagutzen ematea, zentsuraturiko obrak antzeptuz edo zabalduz, edo egileen testigantza eskainiz. Hala, jaialdia sentsibilizaziorako eta dibulgaziorako tresna indartsua da, herritar askorengana iristen delako, eta gure jendartean bake eta giza eskubideen kultura eraikitzen laguntzen duelako.

El uso más habitual de la noción de censura refiere a la intervención que realiza un censor sobre el contenido o la forma de una obra, atendiendo razones morales, políticas, religiosas, ideológicas o de otro tipo. La censura, de esta manera, supone prohibir o limitar una expresión por considerar que sus contenidos pueden ser ofensivos o dañinos.

La censura por lo general, está asociada a impedir la difusión de información contraria a los intereses del censor. En las sociedades democráticas, la censura previa suele estar prohibida, y los gobernantes no tienen derecho a impedir la publicación de ningún material. En caso de que dicho material, una vez hecho público, incurra en un delito, la justicia puede tomar las medidas correspondientes.

Sin embargo, la censura en las artes escénicas y plásticas ha sido y sigue siendo implementada en todo el mundo con acciones que vulneran, en la mayoría de los casos, derechos fundamentales protegidos por el derecho internacional de los derechos humanos.

Es por esto que nuestro festival, ZENTSURA AT!, que este año celebra su XII edición, tiene entre sus objetivos denunciar los casos en que artistas de diferentes artes son o han sido censurados. Visibilizar la censura, dar a conocer vulneraciones de los derechos humanos más básicos, a través de la interpretación o difusión de las obras censuradas o del testimonio de sus autores, es una potente herramienta de sensibilización y divulgación, que llega a un gran número de ciudadanos y ciudadanas, contribuyendo a construir una cultura de la paz y los derechos humanos en nuestra sociedad.

Horretarako sortu zen ZENTSURA AT!, aurten XII. edizioa izango duena, arrazoi honengatik edo bestearengatik uneren batean, herrialderen batean... zentsuratuak izan diren artistak babesteko, bai eta Giza Eskubideak eta adierazpen-askatasuna babesteko ere.

Oraingoan, gure Artista plastiko garrantzitsuenetako bati eman nahi izan diogu ahotsa, AGUSTIN IBARROLAri, hain zuzen, zentsura hainbat ideologia antagonikoren aldetik jasan izan baitu. Deserria, espetxea, isunak... guztia pentsatzeko bere eskubideari eusteagatik, bere burua adierazteko eskubidea egikaritzeagatik, kasu honetan pinturaren eta eskulturaren bitartez, eta, nabarmena denez, hitza hartzeko bere eskubidea ez baztertzeagatik.

Gure esker ona Jose Ibarrolari, erakusketa honen komisarioa izateagatik.

Gure esker ona EHUri, emandako laguntzagatik.

José Ángel Serrano
ZENTSURA AT! Jaialdiaren Zuzendaria


Así surge este festival ZENTSURA AT!; como apoyo a todos los artistas que por alguna razón, en algún momento, en algún país..., han sido censurados, con el objetivo de defender los Derechos Humanos y la libertad de expresión.

En esta ocasión hemos querido dar voz a uno de nuestros Artistas plásticos más importantes, AGUSTIN IBARROLA, que ha sufrido censura desde diferentes y antagónicas ideologías. Exilio, cárcel, multas, todo ello por mantener su derecho a pensar, su derecho a expresarse, en este caso a través de la pintura y la escultura, además de, evidentemente, su derecho a la palabra.

Gracias a Jose Ibarrola por comisariar la exposición.

Gracias a la UPV por el apoyo prestado.

José Ángel Serrano
Director Festival ZENTSURA AT!



AGUSTÍN IBARROLA

CENSURAS - ZENTSURAK

Umetan, Agustín Ibarrolak ez zekien pintore izan nahi zuela, baina bai pintatu nahi zuela. Ez zeukan senide artistarik, ezta esparru horretan lagun ziezaiokeen gertukorik ere, eta, hala ere, gazte-gaztetatik izan zuen arte plastikoetarako berezko gaitasuna.

Gerraoste betean, baliabiderik eta ia erreferenterik gabe, sorkuntzarako jakin-min hori askatzea erabaki zuen. Horrela, anbizioz eta egoskorkeriaz, Bilboko gizarte kontserbadore eta tradizionalean ateak irekiz joan zen. Ate horietako bati esker, eta apena 18 urterekin, erakusketa bat jarri zuen Bilboko Studio Galerian. Lehen erakusketa horren arrakastaren harira, Vázquez Díazek Madrilen zuen tailerrera bekadun gisa joatea proposatu zioten, eta bi urte eman zituen han, pintoreen ogibidea, pintoreen bizimodua, pintoreen harremanak eta pintoreen eskasiak gertu-gertutik bizitzen.

Gero, sorterrira bueltatu behar izan zuen Donostiako Loiolako Kuarterlean soldadutzat egitera.

1952an, Arantzazun eraikitzen ari ziren frantziskotar ordenaren basilika berrirako horma irudien lehiaketa egin zen, eta absiderako diseinaturiko zirriborro batzuk aurkeztu zituen. Elizako sektore batek eta «indar bizek»errereakzionatu egin zuten "modernismoaren" eta argi eta garbi sinesgabek ziren artisten presentziak eragiten zuen lotsagabekeriaren aurka. Tokiko egunkari batean agertu ziren kritika horietako bati erantzunez, Agustinek hauxe idatzi zion kritikariari, publikoki, kuarteretik: ...«izan ere, zirriborro hauek ez diete deboziorik inspiratuko ez hari ez besteei,

De niño, Agustín Ibarrola, no sabía que quería ser pintor, pero sabía que quería pintar. No tenía antecedentes familiares artísticos, ni nadie próximo que le pudiera guiar y sin embargo, desde muy joven desarrolla una capacidad innata para las artes plásticas.

En plena posguerra, sin medios y apenas referentes, decide dar rienda suelta a sus inquietudes creativas. A base de ambición y obstinación consigue ir abriendo puertas en la conservadora y tradicional sociedad bilbaína. Una de esas puertas le lleva a exponer, con apenas 18 años, en la Galería Studio de Bilbao. A raíz del éxito de esta primera exposición le proponen ir como becado al taller de Vázquez Díaz en Madrid. Dos años de intenso contacto con el oficio de pintor, con la vida de pintor, con los compañeros de pintor, con las penurias de pintor.

La experiencia termina cuando tiene que regresar para hacer el servicio militar en el cuartel de Loyola de San Sebastián.

En 1952 se convoca el concurso de pinturas murales para la nueva basílica de la orden franciscana que se estaba construyendo en Aránzazu, en el que participa con unos bocetos diseñados para el ábside. Un sector de la Iglesia y «las fuerzas vivas», reaccionan contra el "modernismo" y la irreverencia que suponía la presencia de artistas manifiestamente no creyentes. Ante una de esas críticas que aparece en un periódico local, Agustín contesta desde el cuartel públicamente y por escrito al crítico: ... «ya que para él y también para los demás, no pueden inspirar devoción estos bocetos, puesto que están hechos sin inspiración ni devoción, señor 'crítico', yo no creo en Dios; sin

inspiraziorik eta deboziorik gabe eginak daudelako; 'kritikari' jauna, nik ez dut Jainkoaren sinesten, baina, halere, Arantzazun pintatu nahiko nuke, gizakiengän sinesteko». Berehalako ondorioa ekarri zuen horrek: ziegara eraman zuten. Era berean, baina, printzipioen deklarazio bat egin zuen horrekin, eta errealityeari aurre egiteko modu bat ezarri zuen, bizi osoan berekin eramango zuena.

50eko urteen erdialdera, Espainiako egoera sozial, ekonomiko eta politiko itogarriaz nazkatuta, Parisera alde egin zuen. Han, ikaragarrizko kontraste intelektual eta profesionalarekin topo egin zuen, baina bere egoera ekonomikoa ezin txarragoa zen artean: brotxa lodiko pintorea, lanaldi partzialekoa. 1957an, lankide batzuekin batera, Equipo 57 sortu zuen, hau da, garai hartan europar artearen hiriburuan nagusi zen informalismoaren eta Parisko Eskolaren alternatiba gisa arte arrazionalista abstraktua sustatzen zuen esperientzia abangoardista. Urte frenetikoak eta emankorrak izan ziren, eta orduan landatutako haziak haren lan ibilbide osoan ernatuz joan ziren.

1961ean, Espainiara itzultzean, «Estampa Popular Vasca» sortu zuen zenbait artista bizkaitarrekin batera, estatu osoan eraikitzen hasiak zirenen irudira eta antzera. Grabatuak ekoizten hasi zen, eta frankismoaren aurkako erresistentziaren ikono bihurtu ziren laster; «Paisajes de Euskadi» (Euskadiko paisaiak) izenburua jarri zien.

1962an, Alderdi Komunistako militante izateagatik ezaguna zelarik, atxilo hartu zuten beste kide batzuekin batera; Gerra Kontseiluan epaitu zuten, eta epaimahai militar batek bederatziz urteko kartzela zigorra ezarri zion. Burgosko espelunen, ezkutuan pintatzen jarduten zuen, eta haren artelanak, zeta eta paper zatiz eginak, isilean ateratzen zituzten Europa osoan erakusteko. Laguntasun eta solidaritate garaia ziren. Handik lau urtera atera zen, baldintzaapeko

embargo quisiera pintar en Aránzazu para creer en los hombres». Consecuencia inmediata: calabozo..., y también una declaración de principios y una manera de enfrentarse a la realidad que le acompañará el resto de su vida.

A mediados de los años cincuenta, harto del asfixiante ambiente social, económico y político que reinaba en España, decide marcharse con lo puesto a París. El contraste intelectual y profesional es inmenso, pero su situación económica sigue siendo pésima. Pintor de brocha gorda a tiempo parcial, en 1957, junto con otros compañeros, funda el Equipo 57. Una experiencia de vanguardia que impulsa el Arte Racionalista Abstracto, como alternativa al Informalismo y a la Escuela de París, que era la tendencia dominante por aquel entonces en la capital del arte europeo. Son varios años frenéticos y fructíferos cuyas semillas han ido germinando a lo largo de toda su actividad profesional.

En 1961, de vuelta a España, crea junto con un grupo de artistas vizcaínos «Estampa Popular Vasca» a imagen y semejanza de las que ya se estaban constituyendo por toda la geografía nacional y empieza, por su parte, la producción de grabados que pronto se convertirían en ícono de la resistencia antifranquista. Los titula genéricamente «Paisajes de Euskadi».

En 1962, conocida ya su militancia política en el Partido Comunista, es detenido junto con otros compañeros, juzgado en Consejo de Guerra y condenado por un Tribunal Militar a nueve años de cárcel. En el Penal de Burgos pinta a escondidas y sus obras, en retazos de sedas y papeles, son sacadas clandestinamente para ser expuestas por toda Europa. Son tiempos de ayuda y solidaridad. Sale cuatro años después en libertad condicional, pero su destacada participación en los grupos de la llamada «Escuela Vasca» y sobre todo su colaboración en las movilizaciones obreras, así como en la creación de las incipientes Comisiones

askatasunean. Alabaina, «Euskal Eskola» delakoaren taldeetan nabarmen parte hartzen zuenez eta, batik bat, langile mobilizazioetan eta langile batzorde hasi berrien sorreran lagundu zuenez, atzera espetxeratu egin zuten. Orduko aitzakia izan zen bere anaia Josuk eta berak ustez ostiko bat eman ziotela polizia nazional bati Bandaseko grebari elkartasuna adierazteko protesta bat amaitzean.

Basauriko espetxeen igaro zituen bi urteetan, zirriborroak egiten eta pintatzen jarraitu zuen. Hainbat gai eta gogoeta atera zituen han, eta, behin kalean, erakusketa, solasaldi eta eztabaiden bitarbez jorratu zituen gai eta gogoeta haiiek, nahiz eta bere erakusketetako batzuk zentsuratu edo itxi egin zituzten. 1973an, Bilboko Medikuntza Fakultatean arteari buruz eman zituen hitzaldi haietako baten harira, salbuespen egoera bete-betean, berriro atxilotu zuten. Orduko hartzan, 500.000 pezeta ordaindu behar izan zituen aske ateratzeko, eta ohiko mehatxu ofizialez gain mehatxu anonimoak ere jasan behar izan zituen. Handik bi urtera, aurrez pentsaturik eta azpikeriaz, eta gorroto handiz, Guerrilleros de Cristo Rey taldekoek edo auskalo nork haren familiaik Gametxon alokatua zuen baserri-estudioa suntsitu zuten, egun argi betean. Hantxe gelditu ziren artelan askoren eta itxaropen ugarien errautsak. Hilabete batzuk geroago, Franco hil zen.

Demokraziarako igarobidea ez zen erraza izan. Frankismoko urte luzeetan askatasuna eta are bizitza arriskatuz borrokatu zen jendeak egokitutegi behar izan zuen egoeraz bizkor ahaztu eta errealtitate berrira moldatu nahi zuen gizarte batera. Normalizazio kulturala, soziala bezala, nagusitu egin zen gertakarien logikarekin, baina logika hori ez da beti logikoa, eta are gutxiago bidezkoa.

80ko hamarkadan zenbait erakusketa egin zituen —batzuk oso garrantzitsuak—, artista berezi batzuen aitorpenean eta erresistentzia ereduan oinarrituta. Munduak, baina, presa zuen

Obreras le llevan otra vez a la cárcel. En esta ocasión el pretexto es una supuesta patada que propinaron al alimón su hermano Josu y él a un policía nacional cuando finalizaba una protesta en solidaridad con la huelga de Bandas.

En los dos años que pasó en la cárcel de Basauri siguió bocetando y pintando. Temas y reflexiones que una vez en la calle continuó desarrollando en muestras, charlas y debates a pesar de que varias de sus exposiciones fueron censuradas o clausuradas. En 1973, a raíz de una de estas conferencias sobre Arte en la Facultad de Medicina de Bilbao, en pleno estado de excepción, es nuevamente detenido. En esta ocasión su libertad le costó 500.000 pesetas y entrar en la dinámica de las amenazas anónimas además de las habituales amenazas oficiales. Dos años después, con alevosía, a plena luz de día, premeditación y mucho rencor, Guerrilleros de Cristo Rey o lo que fueran, destruyeron el caserío-estudio que la familia tenía alquilado en Gametxo. Allí quedaron las cenizas de muchas obras y bastantes esperanzas. Unos meses después murió Franco.

La salida hacia la democracia no fue fácil. La gente que había peleado jugándose la libertad e incluso la vida en los largos años del franquismo, tuvo que adaptarse a una sociedad que, en la mayoría de las ocasiones, quería pasar página rápidamente y acomodarse a la nueva realidad. La «normalización cultural» como la social, se impuso con la lógica de los hechos, que no siempre es lógica, ni mucho menos justa.

Después de algunas exposiciones —algunas ciertamente importantes en la década de los ochenta basadas— en el reconocimiento y ejemplo de resistencia que se les hizo a algunos artistas señalados, el mundo profesional tenía prisa por la homologación comercial y estética internacional y fue decantándose hacia una institucionalización cada vez más sectaria que centrifugaba a todo aquél que no jugase a su juego. La toma de posiciones

homologazio komertziala lortzeko eta nazioarteko estetikari jarraitzea, eta gero eta sektarioagoa zen instituzionalizazio bat babestu zuen, bere jokoarekin bat egiten ez zuten guztiak zentrifugatzen zituen. Posizio abantailatsuak ez ziren sektore politiko edo profesionalean soilik hartzen, ordea; ia-ia gizarteko esparru guztietañ berdin gertatzen zen.

Hala, alde batetik, gizarteak Agustín aintzatesten zuen, emandako zerbitzuengatik, baina, bestetik, profesionalki bakartuta eta ahaztuta zeukan nolabait. Egoera horretan, Agustinek berriro ere urrats bat aurrera egin zuen, eta Baso Margotuaren sormen abenturan murgildu zen. Equipo 57rekin batera landu zuen esperimentazioari berriro helduz, eta artean zuen konpromiso soziala alboratu gabe, 1983an bizitzako beste etapa bat ekin zion: artelanak naturan egiten hasi zen, eta povera materialak erabiltzen zituen obra publiko izango ziren eskulturak egiteko.

Demokrazia betean, ETAk artean hilketak egiten zituen, eta odolaren eta oinazearen arrastoak putzuz betetzen zuen bizitza politiko eta soziala. Frankismoaren kontrako borrokarekin konprometitzera bultzatu zuen duintasun, elkartasun eta askatasun sen horrek berak eraman zuen Agustín terrorismoaren biktimarekin konprometitzera ere, eta konpromiso horren ondorioz, bitxia bada ere, gizarteko sektore batzuek seinalatu egin zuten lehenik, eta esetsi ondoren. Desadostasun politiko haiiek, nahiz eta demokraziaren aniztasunaren isla izan beharko luketen, batzuen ustez aberriarekiko etsaitasuna erakusten zuten, baita etsaitasun pertsonala ere.

Alderdiak babesgabe uzten zuen tribuan parte hartzen ez zuen oro. Seinalatua izatearen beldurrrak eta bertutearen kategoriara goratutako hutsalikeriak panorama atsekabegarria ekarri zuten; jendea gutxietsi egiten zen, eta horrek, ezinbestean, sektore kultural eta artistikoei ere eragin zien.

ventajistas no se produce solo en el sector político o profesional; prácticamente en todos los ámbitos de la sociedad sucede lo mismo.

En esta situación dual por un lado de reconocimiento por los servicios prestados pero por otro de un relativo aislamiento profesional y cierto olvido social, Agustín nuevamente da un paso al frente y se embarca en la aventura creativa del Bosque Pintado. Retomando la experimentación que compartió con el Equipo 57 y sin abandonar su compromiso social en el arte, en 1983, abre una nueva etapa vital definida por sus intervenciones artísticas en la naturaleza y el uso materiales povera para esculturas con voluntad de obra pública.

En plena democracia ETA sigue matando y el reguero de sangre y dolor encharca la vida política y social. El sentido de la dignidad, solidaridad y libertad que le empujó a comprometerse en la lucha antifranquista es el mismo que le hace comprometerse con las víctimas del terror. Un compromiso que curiosamente le acarrea el señalamiento primero y después la hostilidad de algunos sectores sociales. Las desavenencias políticas, que debieran formar parte de la pluralidad democrática, algunos las interpretan en clave de enemistad patriótica cuando no de enemistad personal.

El sectarismo deja inerme a quien no participa de la tribu. El miedo a ser señalado y la insignificancia elevada a la categoría de virtud, componen un panorama desolador, de ninguneo que, irremediablemente, también afecta a los sectores culturales y artísticos.

En el año 2000, 25 años después de la quema del caserío, el Bosque Pintado sufre el primero de sus ataques a manos de agentes de ETA o lo que fueran. A pesar de que imágenes de las pinturas del bosque habían encabezado, poco tiempo atrás, la campaña institucional del Gobierno

2000. urtean, baserria erre eta 25 urteratik, Baso Margotuari lehen aldiz eraso egin zioten ETAKo kideek edo auskalo nork. Urte gutxi batzuk lehenago, basoko pinturen irudiak Eusko Jaurlaritzaren «Zatoz eta konta ezazu» erakunde kanpainarako erabili zituzten, eta gero eta oihartzun mediatikoa handiagoa zuten mundu osoan eta gizartean. Hala ere, tokiko erakundeek, tokikoeneak, erabateko axolagabekeria agertu zuten, baita nolabaiteko areriotasuna ere. Baso Margotuak behin eta berriz jasan zituen eraso lotsagarrien, basorako bisitak —hala eta guztiz ere— ugaritz joan izanaren eta zenbait hedabidek zabaldut zituzten berrien eraginez, eskualdeko erakundeek pixkanaka bere egin zuten obra itzel hori.

Denborak zauriak orbaintzen ditu, baina gupidagabea ere bada. Pertsonen bizi zikloa txikia da, eta apenas irauten duen oroitu nahi dutenen memorian. Artistaren arrastoa da, beharbada, askatasuna aitortzeko ditugun baliabide urrietako bat.

Jose Ibarrola. 2017

Vasco «Ven y cuéntalo» y que cada vez tenía más repercusión mediática internacional y social, las instituciones locales, más locales, mantienen una actitud de total indiferencia cuando no de hostilidad. Sólo a raíz de los vergonzosos y sucesivos atentados que sufrió el Bosque Pintado, el —a pesar de todo— aumento progresivo de las visitas a las pinturas y el eco en los diversos medios de comunicación, empujó a las instituciones comarcales a ir asumiendo como propia la descomunal obra.

El tiempo cicatriza las heridas, pero también es implacable. El ciclo vital de las personas es pequeño y apenas permanece en la memoria de quienes quieren recordar. La huella del artista es, quizás, una de las pocas herramientas que tenemos para reconocer la libertad.

Jose Ibarrola. 2017

CENSURAS

ZENTSURAK

AGUSTÍN IBARROLA

XILOGRAFIAK. PAISAJES DE EUSKADI SERIEA
XILOGRAFÍAS. SERIE PAISAJES DE EUSKADI
1961-2001

Espetxetik eginiko
marrazki klandestino
baten erreprprodukzioa.


Tinta/papera. 1963.
Parisko Galerie Epona-ko
erakusketaaren kartela.

1963ko Frantziako
Kritikaren Saria.


Reproducción de un
dibujo clandestino
desde la cárcel.

Tinta/papel. 1963.
Cartel de la Exposición
en la Galerie Epona
de París.

Premio Francés
de la Crítica 1963.




CENSURAS - ZENTSURAK | AGUSTÍN IBARROLA





CENSURAS - **ZENTSURAK** | AGUSTÍN IBARROLA



AGUSTÍN IBARROLA I CENSURAS -ZENTSURAK




CENSURAS - **ZENTSURAK** | AGUSTÍN IBARROLA



AGUSTÍN IBARROLA I CENSURAS -ZENTSURAK




CENSURAS - **ZENTSURAK** | AGUSTÍN IBARROLA




AGUSTÍN IBARROLA I CENSURAS -ZENTSURAK




CENSURAS - **ZENTSURAK** | AGUSTÍN IBARROLA



AGUSTÍN IBARROLA I CENSURAS -ZENTSURAK




CENSURAS - **ZENTSURAK** | AGUSTÍN IBARROLA




AGUSTÍN IBARROLA I CENSURAS -ZENTSURAK



CENSURAS - **ZENTSURAK** | AGUSTÍN IBARROLA




AGUSTÍN IBARROLA I CENSURAS -ZENTSURAK



CENSURAS - **ZENTSURAK** | AGUSTÍN IBARROLA




AGUSTÍN IBARROLA I CENSURAS -**ZENTSURAK**




CENSURAS - **ZENTSURAK** | AGUSTÍN IBARROLA



AGUSTÍN IBARROLA I CENSURAS -ZENTSURAK



CENSURAS - **ZENTSURAK** | AGUSTÍN IBARROLA



AGUSTÍN IBARROLA I CENSURAS -ZENTSURAK



CENSURAS

ZENTSURAK

AGUSTÍN IBARROLA

ENCAPUCHADOS (PAISAJES DE EUSKADI)



Olioamihisea | Óleo / lienzo. *Encapuchados*. 2007

CENSURAS - **ZENTSURAK** | AGUSTÍN IBARROLA



Eskulturak / Esculturas. Egunkarien orriak, kola eta akriliko lausodurak. / Papel de periódicos, cola y veladuras de acrílico.
Encapuchados. 1998.

AGUSTÍN IBARROLA I CENSURAS -**ZENTSURAK**




CENSURAS - **ZENTSURAK** | AGUSTÍN IBARROLA



Argazkiak / Fotografías. Tere Ormazabal. Atentatuak Baso Margotuan. 2000-2001-2003 / Atentados en el Bosque Pintado. 2000-2001-2003

AGUSTÍN IBARROLA I CENSURAS -ZENTSURAK



Grabatua / Grabado. *Encapuchados (Paisajes de Euskadi)*. 2008

ANTOLATZEN DU / ORGANIZA



BABESTEN DU / PATROCINA



LAGUNTZEN DU / COLABORA





Universidad
del País Vasco
Euskal Herriko
Unibertsitatea

ehukultura
Bizkaia



ZENTSLIRAT!